

BILBAO EKINTZA EPEL

ERABAKIA, Bilbao Ekintza EPELen hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko, **hautaketa-prozesua epaitzeko ardura duen epaimahaiarena, hautaketa-prozesuaren gaindituen behin betiko zerrenda onartzen eta argitaratzen duena eta atxikipen-proposamena bidaltzen duena.**

2023ko ekainaren 1ean egindako bileran, arlo Juridikoko eta Kontratazioko teknikari lanpostu bat (derrigorrezko euskararen 2. hizkuntza eskakizuna duena) jabetzan betetzeko hautaketa-prozesua epaitu behar duen epaimahaiak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Jakinaraztea ez dela erreklamaziorik egin epearen barruan gaindituen zerrendaren aurka.

Bigarrena.- Hautaketa-prozesuaren **behin-betiko gaindituen zerrenda** lehentasun-hurrenkeraren arabera eta adierazten den puntuazioarekin onestea eta jendaurrean jartzea. Zerrenda hori iragarki honekin batera doa.

Hirugarrena.- Zerrenda hori Erakundeko Zuzendari Nagusiari bidaltzea, kalifikazio handieneko izangaia hurrengo **lanpostuari atxikitzeko**.

Laugarrena.- Arlo Juridikoko eta Kontratazioko teknikari lanpostura proposatutako pertsonari dei egiten zaio, **osasun-azterketa** egitera etor dadin Bilboko Udalaren Osasun Zentrora (Done Bikendi 4, Bilbo). Data eta ordua berariaz jakinaraziko zaio interesdun bakoitzari.

Bosgarrena.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. eta 121. artikuluen arabera, administrazio-bidea bukatzen ez duen erabaki honen aurka **gorako errekurtsioa** aurkeztu ahal izango zaio Bilbao Ekintza, EPELren Lehendakaritzari, argitaratzen denetik hilabeteko epean. Nolanahi ere, hala badagokio, interesdunek bidezkozat jotzen duten beste edozein bide har dezakete.

Seigarrena.- Hautaketa prozesua gainditu duten baina lanposturik gabe gelditu diren pertsonak, baliozkoak izango dira lanpostuak aldi baterako betetzeko, hautaketa prozedura berri bat egin behar izanik gabe, eta sartu egingo dira entitatearen aldi baterako zerbitzuetarako erabilitako **lan poltsetan**. Horien indarraldia dagokion deialdian hautatutakoek lanpostua hartzen duten egunaren biharamunean hasiko da, eta entitatean zeuden aurreko lan poltsak baliorik gabe geldituko dira.

Bilbon, 2023ko ekainaren 2a

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE



Gaindituen behin-betiko zerrenda

BE2018-0001
ALOR JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE JURÍDICO Y CONTRATACIÓN

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Azken Puntuazioa Puntuación Final
*894***7W	URRESTARAZU	BARCENA	MARIA	72,83
*066***8M	FORTES	MONTILLA	CARMEN	68,17
*609***6J	IRASTORZA	GOMEZ	LEIRE	62,49

Atxikipen-proposamena

BE2018-0001
ALOR JURIDIKOKO ETA KONTRATAZIOKO TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE JURÍDICO Y CONTRATACIÓN

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Puesto Postua
*894***7W	URRESTARAZU	BARCENA	MARIA	Arlo juridikoko eta kontratazioko teknikaria